




MANUEL NARRUK ATZO ESAN DIT



Bertsoaren jasotzailea: R.M. Azkue.

Doinuaren berri

Doinua asko erabiltzen da Gabon kanta gisa, “Gaueko izar argitsuena” bertsoaz.

Bertsoaren berri

“Manuek Narruk” bertsoak jartzeko eskatu dio bertsolari bati (ez dakigu nor den egilea), behor tratuan egin dioten azpijokoaren berri zabaltzeko. Ederki sartu diote ziria Manuel Narruri: behorrek zortzi urte zituela eta ernari zegoela esan, eta benetan hamasei urte izan eta antzu egon. Begi bakarra zela, eta itsua izan.

Manuel Narruk atzo esan dit
bertso berriak **jartzeko**
behor tratua nola egin duen
bere burua **galtzeko**
Don Blas Querido enpeñatu da
neri gezur hau **sartzeko**
ganadu txur hau enkajatu dit
kotxeru bati **saltzeko**.

